

ISILTASUN HAUTSIA

Izen hori darama, *Silencio Roto*, Montxo Armendarizen azken filmak, makien historiari buruzko isiltasuna apurtzen saiatzen delako-edo. Mendiko herrixka bateko jendeen erretratu fina egiten digu Armendarizek: komertzianta faxista erresumina, udal idazkariaren seme salataria, eskola maisu gorria, guardia zibileko sarjentu eta *numero* hiltzaileak, ... Ausentzia esanguratsu bat somatu dut, hala ere, erretratuan: apaiza. Meza esaten -kantatzen- ari dela agertzen da eszena labur bakar batean. Herri hartako historia errealean apaizak zeregin erabakigarriagoa izan zuela pentsatzeko ez da irudimen ariketa handiren beharrik. Orduan, zergatik isiltzen du Montxok elizaren papera gerra-ondoko herrixka bateko bizimodu gatazkatsuan? Diruz babesten duten TVE edo CANAL PLUSen inposaketa ote da? Iruñea eta Tuterako artzapezpikuarena, agian? Hori Armendarizek berak erantzun beharko du, inork inoiz galdetzen badio.

Beste kasu bat: EGUNKARIAk ez du munduko beste egunkari guztiek duten kontaktu atalik kaleratzen, zer esanik ez prostituzio iragarkirik. Zergatik? Martxelo Otamendik Vatikanoren ordezkaria ote du bere gainetik agintzen? Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailak diru laguntzaren truke eguneroko *eskelaren* argitarapenaz gain jarritako baldintza da, akaso?

Nik esplikazio orokorrago bat ikusten diot kontu honi: elizak botere ikaragarria du oraindik hark erabakitzen ditueni buruzko isiltasunak gizarteari inposatzeko. Eta ez naiz eliza erakundeaz bakarrik ari; elizaren botere ekonomiko-politiko-ideologikoa gauza jakina da. Sinesdun askoren jokabide inposatzaileaz ari naiz. Gai *sakratuetan* ez dute onartzen bestela hitzetik hortzera darabilten aniztasunik. Kristau kontzientziaren izenean prest azaltzen dira maiz besteon kontzientzia, erabaki ahalmena edo informazio eskubidea gutxiesteko. Bestalde, noiz ikusi duzue politikari bat bere kontzientziaren izenean alderdiaren erabakiari aurre egiten, abortoa, eutanasia, izatezko bikoteak edo antzeko gai *sakratu* batean ez bada?